

Nur eta altxorraren kutxa

Toti Martínez de Lezea



Gaur olaturik ez dago eta monitoreak erabaki du “paddle-surf” egingo dutela. Nurrekin batera taldea osatu dute Ikerrek, Sandrak eta Unaik. Nurri ez zaio paddle-surfa asko-asko gustatzen; nahiago ditu olatuak, zenbat eta handiagoak orduan eta hobeto! Hondartzara ailegatzean, neoprenozko kamiseta jantzi dute. Ogoñoko lurmuturra dago hondartzaren amaieran. Nurrek beti jakin nahi izan du zer dagoen punta horren beste aldean: munstroak, krokodiloak, medusak, pirañak, laminaren bat... altxorren bat agian?